ORIOKO UDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2024ko irailaren 26a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30 Bukatzeko ordua: 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

ORIOKO UDALA

Udalbatzarraren akta

Ohiko bilkura, 2024ko

irailaren 26koa. Orri-zk. 2

GAI-ZERRENDA

1. 2024ko bigarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.

2. 2024ko udal-aurrekontuaren bigarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.

3. Onartzea, egoki bada, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak aurkeztutako proposamena 2025eko auto-taxien herri barruko tarifei buruz.

4. Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalak eta beren eranskinak aldatzeko proposamena, eragina 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.

5. Onartzea, egoki bada, 2025eko egutegi fiskala.

6. Eskariak eta galderak.

BAT.- 2024KO BIGARREN HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren bigarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

BI.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN BIGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren bigarren hiruhileko exekuzio-egoeraren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

HIRU.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TAXIAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA 2025EKO AUTO-TAXIEN HERRI BARRUKO TARIFEI BURUZ.

Udalbatzarrak proposamenaren berri izan du. Orioko udalerrian 2025erako auto-taxi zerbitzuaren tarifak % 2,9 igotzeko proposamena da, ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI (AGITAX) elkarteak horretarako egindako eskaerari jarraituz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

% 2,9 HANDITZEA Orioko udalerriko 2025erako auto-taxi zerbitzuaren herri barruko tarifak. Honako hauek izango dira:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HERRI BARRUKO TARIFAK 2024			
PROPOSAMENA	GUTXIENEKO TARIFA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXAROTE-ORDUA
1. TARIFA*	6,5759	1,4033	26,8001
2. TARIFA**	7,8278	2,2382	43,7458

Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du.

(*) Tarifa hori lanegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hori lanegunetan aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian ezarritako jaiegunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta abenduaren 31n ere.

LAU.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALAK ETA BEREN ERANSKINAK ALDATZEKO PROPOSAMENA, ERAGINA 2025EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak proposamenaren berri izan du. Proposamena ordenantza fiskalak eta haien eranskinak aldatzeko da, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an irizpena eman zuen, eta honela dio:

1.- Irizten da % 3 **HANDITZEA** Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikatu beharreko karga-tasak, honela:

I. Karga-tasa.

Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikatu beharreko karga-tasa honako hau da:

- ‰ 4,331 industrialdeetan edo hirugarren sektoreko eremuetan kokatutako hiri-ondasunetarako.

- ‰ 2,092, gainerako ondasun higiezinetarako.

Era berean, hobari honi **EUSTEA** erabaki da:

1.- Hobaria familia ugarientzat:

Hobariaren portzentajea aldatu egingo da azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 4. artikuluan zehaztutako familia ugariaren kategoriaren arabera.

— Kategoria bereziko familia ugarientzat, hobaria % 90ekoa izango da.

— Kategoria orokorreko familia ugarientzat, hobaria % 50ekoa izango da.

Kasu guztietan, hobariak ezin izango du 250 euroko muga gainditu.

Hobaria lortzeko betebehar formalak:

— Familia ugariaren titular diren subjektu pasiboek segidan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, familia ugariaren titulua iraungi arte ofizioz hobaria aplikatu ahal izateko, salbu eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren aldaketaren onartzen bada.

— Interesdunaren eskaera, Udalak emandako ereduaren arabera.

— Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua. Udalak egiaztatuko du familia-unitateko kideak ohiko etxebizitzan erroldatuta daudela urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Familia ugariko titularrak etxebizitza bat baino gehiagoren jabe badira, hobaria ez da aplikatuko.

Hobari-eskaera dagokion urteko errolda behin betiko itxi aurretik egin beharko da. Errolda behin betiko itxita dagoela, ondoren egindako eskaerek ez dute uneko ekitaldian eraginik izango.

Herritarrak eskaeraren aurka egiten ez badu, diru-bilketako langileek honako datu hauek egiaztatuko dituzte datu-bitartekaritzako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik:

— Familia ugariaren liburua.

— Ondasun higiezinak: etxebizitzen titularra.

— Ondasun higiezinak: udalerritik kanpoko etxebizitzak.

Betiere, aldez aurretik honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du, eta familiako kideek bertan erroldatuta egon behar dute.
- Familia-unitateko kide batek ere ez du izan behar ohiko etxebizitza ez den beste edozein ondasun higiezinen jabe.

Era berean, hobari honi **EUSTEA** erabaki da:

2.- Energia aprobetxatzeko sistemak.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15. artikuluaren eta OHZren apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauaren ondorengo aldaketaren arabera, hobari hauek aplikatuko dira:

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kuotan % 40ko hobaria izango dute energia-iturri berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak dituzten ondasun higiezinek. Instalazio horiek Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (EITE) bete beharko dute.

Eraikina Eraikuntzaren Kode Teknikoaren eta Energia Aurrezteko Araudiaren (CTE-DB-HE) arabera egin bada, ez da hobari hori aplikatuko. Hobaria eskuratu ahal izateko, interesdunek eskabide bat aurkeztu beharko dute, eta lehen aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio eskabideari.

Hobari hori behin bakarrik aplikatuko da, eskaera egiten den urtean, alegia.

Era berean, hobari horiek aplikatzeko, nahitaezkoa izango da egunean izatea Udaleko zergen ordainketan. Baldintza hori ezinbestekoa da hobaria emateko, eta betetzen ez bada, eskubidea galduko da.

ALDATU egiten da ondoren adierazten den errekargua:

Errekarguak.

Errentamenduagatik edo erabilera lagatzeagatik subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko bizilekua ez diren bizitegi-erabilerako ondasun higiezinei zergaren kuota likidoaren % 100eko errekargua aplikatuko die Orioko Udalak. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboei exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hori aplikatzeko, hau hartuko da bizitoki-erabilerako higiezintzat: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Ondorio berberetarako, bizitegi-erabilerako higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, baldin eta etxebizitza dagoen udalerriko erroldan jasota badago etxebizitza hori okupatzailearen edo okupatzaileen ohiko bizilekua dela, zerga sortzen den datan.

Errekarguaren salbuespenak:

1. Ondasun higiezinen zergan zerga-hobariren bat dutenek.

2. Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emanda dauden jarduerei lotutakoak.

3. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiago alokatuta egon diren etxebizitzak (errentan emandakoak bakarrik, ez dira barne hartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:

- Salbuespena aplikatzeko eskaera.

- Alokairu-kontratua, behar bezala datatua eta sinatua. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo -erabilera izango duela.

- Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari emango zaio alokairu kontratu horien berri.

4. Zahar-egoitzetan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespena etxebizitza honi bakarrik aplikatuko zaio: egoiliarra egoitzan sartu aurretik ohiko etxebizitza zen etxebizitzari.

5. Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.

6. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non eta, nahiz eta urtarrilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilabetekoan egin den.

7. Legez aurri-egoeran deklaratutako eraikinetan kokatutako etxebizitzak.

8. Hiri-katastroan erregistroko bi finka independente osatzen dituzten baina etxebizitza bakar

gisa erabiltzen diren etxebizitzak. Udal-zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute zirkunstantzia horren balorazio-txostena.

9. Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.

10. Hirigintzaren aldetik antolamenduz kanpokotzat jotako eraikinetan kokatutako etxebizitzak.

11. Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate- edo gas-kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

12. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin eta mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiartekoaren etxean bizi eta erroldatuta badago. Salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izango da etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiartekoaren etxebizitzara joan aurretik.

Irizten da **BERE HORRETAN UZTEA ETA EZ HANDITZEA** landa-izaerako ondasun higiezinen gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa. % 1,10 izaten jarraituko du.

2.- Irizten da **BERE HORRETAN UZTEA ETA EZ HANDITZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuotak gehitzeko koefiziente bakarra.

3.- Irizten da **EGOKITZEA** Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskaleko koefizienteak eta karga-tasa aplikagarriak, balio-gehikuntzaren sortze-aldien arabera, honela:

I. ERANSKINA. KOEFIZIENTEAK

Balio-gehikuntza noiz sortu den kontuan hartuta, hauek izango dira aplikatu beharreko koefizienteak eta karga-tasak:

Noiz sortua	Koefizienteak	Karga-tasa (%)
Urtebetetik behera	0,14	30
Urtebete	0,13	30
2 urte	0,14	30
3 urte	0,14	30
4 urte	0,16	30
5 urte	0,17	30
6 urte	0,16	20
7 urte	0,12	20
8 urte	0,10	20
9 urte	0,09	20
10 urte	0,08	20
11 urte	0,08	10
12 urte	0,08	10
13 urte	0,08	10
14 urte	0,09	10
15 urte	0,09	10
16 urte	0,10	10
17 urte	0,13	10
18 urte	0,17	10
19 urte	0,23	10
20 urte edo gehiago	0,40	10

Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru-arau bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru-arauen bidez egin ahal izango da.

Horrela, Alkatetzari ahalmena ematen zaio gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, ebazpen bidez aplika daitezkeen koefiziente berriak argitara ditzan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

4.- Irizten da % 3 **HANDITZEA** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari aplikatu beharreko karga-tasak, honela:

ERANSKINA

I. TARIFEN TAULA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zerga Araubideari buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauan xedatutakoa betez, zerga hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko da, tarifen taula honen arabera:

Potentzia eta ibilgailu-mota	Kuota eurotan
A) Turismoak:	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	44,85
9 zaldi fiskaletik 11,99ra bitartekoak	92,95
12 zaldi fiskaletik 13,99ra bitartekoak	152,15
14 zaldi fiskaletik 15,99ra bitartekoak	216,22
16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoak	295,84
20 zaldi fiskaletik gorakoak	365,78
B) Autobusak:	
21 plazatik beherakoak	210,23
21 plazatik 50era	299,08
50 plazatik gorakoak	374,85
C) Kamioiak:	

1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak 106,47

1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak 206,51

2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak 293,77

9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak 368,23

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskaletik beherakoak. 45,70

16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoak..... 70,57

25 zaldi fiskaletik gorakoak..... 210,23

E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak:

1.000 kg-tik beherako eta 750 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak..... 45,70

1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak..... 70,57

2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak 210,23

F) Beste ibilgailu batzuk:

Ziklomotorrak 12,10

125 zentimetro kubiko arteko motozikletak 12,10

125 eta 250 zentimetro kubiko bitarteko motozikletak. 20,66

250 eta 500 zentimetro kubiko bitarteko motozikletak. 41,62

500 eta 1.000 zentimetro kubiko bitarteko motozikletak. 82,16

1.000 zentimetro kubikotik gorako motozikletak. 164,34

Zerga honen tarifen ondorioetarako, motozikleta elektrikoak 125 zentimetro kubikora arteko motozikletatzat hartuko dira, lege orokorrak edo foru-arau batek arautzen dituen arte.

Zerga hori arautzen duen Ordenantza Fiskalean ezarritako hobariek indarrean jarraituko dute,

honela:

II. HOBARIAK

— Hobariak emateko, aldez aurretik eskatu beharko da. Hobariak eskaera egin eta hurrengo ekitaldian aplikatuko dira, eta ez dute atzeraeraginik izango. Hala ere, zerga-onura ekitaldiko urtarrilaren 15a baino lehen eskatzen bada, eskatzen den ekitaldirako emango da, betiere zergaren sortzapen-datan hobaria izateko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Hobari hauek aplikatu ahal izango dira:

a) % 75eko hobaria, ibilgailu elektrikoei eta energia elektrikoa eta erregaiak

konbinatzen dituzten ibilgailu hibridoei.

b) % 25eko hobaria izango dute kilometroko 120 gramo karbono dioxido (CO_2) baino gutxiago isurtzen duten ibilgailu matrikulatu berriek, eta % 40koa, kilometroko 110 gramo karbono dioxido (CO_2) baino gutxiago isurtzen dutenek.

Hobaria 2 urtetan emango da, ibilgailuaren lehen matrikulaziotik kontatzen hasita.

Hobaria jasotzeko eskubidea izateko, interesdunek, eskabideaz gain, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartela eta eraginkortasun energetikoaren etiketa aurkeztu beharko dituzte, betiere ibilgailu hori Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratutako “Erregaien kontsumoaren eta CO_2 isurien gidaliburuan” agertzen ez bada.

— Zergaren kuotaren % 100eko hobaria ezarriko zaie ibilgailu historikoei edo gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenei, fabrikatu diren egunetik kontatzen hasita. Data hori ezagutzen ez bada, lehen matrikulaziokoa hartuko da aintzat edo, bestela, mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Hobari hori eskatu egin behar da eta, Udalak onartu ondoren, eskatu eta hurrengo zergaldian sortuko ditu ondorioak.

Zerga hau arautzen duen ordenantza fiskaleko 2. artikuluko —Salbuespenak— e) letran xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua indargabetu egin dela, eta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak ordeztu duela, minusbaliotasun-maila aitortu, adierazi edo kalifikatzeko prozedurari buruzkoak.

5.- Irizten da **BERE HORRETAN UZTEA ETA EGOKITZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagozkion tasak, eta honela idatzita geratzen dira:

ERANSKINA

Karga-tasa orokorra: % 5

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	**Hobariak (%)**
a) Irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Alde Zaharraren mugaketa-eremuaren barruan egiten dituzten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak, gehienez ere 2 solairu eta estalkipeko aprobetxamendua dutenak	60,00
b) Irabazi asmoko pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Alde Zaharraren mugaketa-eremuaren barruan egiten dituzten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak	20,00
c) Baserrietako edo nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategi bati lotutako eranskinetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	50,00
d) Sustapen publiko edo pribatuko etxebizitza sozialetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	60,00
e) Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	40,00
f) Erregimen tasatuko etxebizitzak sustatzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	20,00
g) Alokairuko etxebizitza sozialak sustatzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	90,00
h) Interes edo onura publiko berezia duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra	95,00
i) Irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta elementu komunetan arkitektura-oztopoak kentzeko eraikuntzak, instalazioak eta obrak. Hobaria ez zaie aplikatuko eraikin berrietan egindako eraikuntza, instalazio eta obrei, ez eta eraikuntza baten birgaitze integrala dakarten eraikuntza, instalazio eta obrei ere	95,00

j) Desgaitasuna duten mugikortasun murriztuko pertsonen etxebizitzak egokitzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	80,00
k) Eraikuntza, instalazio eta obretan eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen direnean autokontsumorako. Hala ere, hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak izan behar dituzte, betiere ez bada gai horri dagokionez indarrean dagoen araudi bat aplikatzearen ondorio	95,00
l) Merkataritza- eta industria-establezimendu berriak irekitzeko eraikin, instalazio eta obra guztietan, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada	90,00

- Orioko Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruko gutxieneko tarifa: 38,32 €

- Gutxieneko tarifa udalerriaren gainerakoan: 76,58 €

Zerga hau aplikatzeko arauak:

Obra handietan, hondakinen kudeaketa behar bezala egiten dela bermatzeko, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %50eko abala aurkeztu beharko da, eta obrak amaitu ondoren itzuli egingo da aurkeztutako abala, baldin eta hondakinen kudeaketa behar bezala eta egoki egin dela egiaztatzen bada, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuta.

Ezin da hobari bat baino gehiago aplikatu aldi berean. Hau da, eraikuntza, instalazio edo obra bakoitzak hobari bakarra izango du, zergadunarentzat onuragarriena.

Obrak irisgarritasun- eta bizigarritasun-arlokoak izango dira eta, beraz, hobaria izango dute, baldin eta udal-teknikari batek desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko nahitaezkoak direla frogatzen badu ziurtagiri bidez.

6.- Irizten da % 3 **HANDITZEA** ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatu beharreko tarifak:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal-erabilera publikoko lurrak okupatzea merkantziekin, eraikuntza-materialekin, obra-hondakinekin, hesiekin, puntalekin, astoekin, aldamioekin,

etxolekin eta siloekin eta antzeko beste instalazio batzuekin.

- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu esklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.

- Udal-erabilera publikoko lurrak okupatzea mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko elementuekin, irabazi-asmoarekin.

- Bide publikoan kioskoak jartzea.

- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmatzeak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariek indarrean segituko dute, baina 5. paragrafoan kendu egingo da animalien salmenta.

- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.

- Udal-administrazioak edo udal-agintariek norbaiten eskariz emandako agiriak, honela:

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

1. Honako hau izango da udalaren eskumeneko espediente-mota guztien izapidetze osoagatik instantzia bakoitzean aplikatu beharreko tarifa, hasten denetik azken ebazpenera arte, hartutako erabakia ziurtatu eta interesdunari jakinaraztea barne:

	€
Lehenengo epigrafea. Udaltzaingoak atestatu-txosten bat emateagatiko espedientea.	
Udaltzaingoak atestatu-txosten bat ematea (aleko)	83,65
5,89 euroko errekargua ezartzen da atestatua/txostena postaz bidaltzeagatik.	

Bigarren epigrafea. Udal-eskumeneko beste gai batzuetan.	
1. Hirigintzako ziurtagiriak	27,85
2. Hirigintzako kontsultak edo informazioak	98,00
3. Edozein motatako ziurtagiriak, udal-bulegoek ematen dituztenak eta berariaz tarifatuta ez daudenak, orriko	1,70
4. Botereak askiestea	21,20
5. Ofizioz izapidetutako hiri-finken aurri-deklarazioaren espedienteak	1.250,00
6. Interesdunak eskatuta izapidetutako hiri-finken aurri-deklarazioaren espedienteak	250,00
7. Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak, lizentzia ematen bada	276,25
8. Espediente berak lizentzia ukatzen bada	99,15
9. Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak ez direnen espedienteak, lizentzia ematen bada	138,10
10. Espediente berak lizentzia ukatzen bada	51,25
11. Hirigintza-lizentziaren eskaera-espedienteak, lizentzia ukatzen bada, aurkeztutako aurrekontuaren arabera: % 2	
12. Berariaz tarifatu gabeko beste edozein espediente	8,90
13. Hirigintza-bereizteak eta -agregazioak	80,00

14. Fotokopiak egitea.	
DIN A4 neurria	0,10
DIN A3 neurria	0,15
15. Udal-bulegoek egindako edozein motatako konpultsak, orriko	0,15
16. Biztanleen udal-erroldako ofiziozko bajak izapidetzeko espedienteak. Baldin eta erroldatzeak sei (6) hilabete baino gutxiago irauten badu.	155,00
17. Finken normalizazioa	220,00
18. Finkak desjabetzea, onuraduna administrazio publikoa ez denean	1.100,00
19. Karrerako lanpostu finkoak betetzeko hautaketa-prozesuetan parte hartzea	20,00
20. Aldi baterako lanpostuak, bitarteko funtzionarioak eta lan-poltsak betetzeko hautaketa-prozesuetan parte hartzea	10,00

2. Aurreko tarifak aplikatzearen ondoriozko kuotak 100eko 50 handiagoak izango dira interesdunek premiaz eskatzen badute sortzapena eragin duten espedienteak izapidetzea.

3. Orioko Udalak tasatzaile gisa profesionalen edo plantillan ez dauden funtzionarioen aholkularitza teknikoa eskatu behar badu, eta titulazioa dela-eta espedientean horretan irizpena eman behar badute, interesa duen partikularrak erreferentziako profesionalei ordaindu beharreko ordainsarien zenbatekoa ordaindu beharko du.

- Lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruzko legeriak eskatzen dituen hirigintza-lizentziak ematea, honela:

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

	€
a) Udal-arkitekto teknikoaren ikuskapen teknikoa behar duten eta aldamioak erabili beharrik ez dagoen obra edo instalazioen espedienteak izapidetzeagatik.	43,50
b) Udal-arkitekto teknikoaren ikuskapen teknikoa behar duten eta aldamioak erabili behar diren obra edo instalazioen espedienteak izapidetzeagatik.	73,55
c) Obra handien espedienteak izapidetzeagatik	408,40
d) Udalaren jarduera, ekimen pribatu bidez sustatua:	
Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualak izapidetzeagatik	4.500,00
Ekimen pribatuko plan bereziak eta plan partzialak izapidetzeagatik	3.500,00
Urbanizatzeko jarduketa-programak izapidetzeagatik	1.500,00
Hirigintzako birpartzelazio-proiektuak izapidetzeagatik	2.100,00
Ekimen pribatuko xehetasun-azterlanak izapidetzeagatik	1.000,00
e) Lehen erabilerako edo okupazioko lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko eta eraikitako m^2 bakoitzeko	2,40
Merkataritza-lokal bakoitzeko eta eraikitako m^2 bakoitzeko	1,20
Industria-pabiloi edo -modulu bakoitzeko eta eraikitako m^2 bakoitzeko	1,20
Lur-mugimendua (m^3-ko)	0,30
Lerrokatzeak (fatxadako metro linealeko)	8,16
Borda, ukuilu edo nekazaritzako eta abeltzaintzako pabiloi bakoitzeko eta eraikitako m^2 bakoitzeko	0,60

Aurreko tarifak aplikatzearen ondoriozko kuotak % 50 handiagoak izango dira interesdunek premiaz eskatzen badute sortzapena eragin duten espedienteak izapidetzea.

- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioen funtzionamenduari buruzko egiaztapenak eta ikuskapenak egitea.

- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea. Kasu horretan, % 5eko igoera erabaki da.

- Udal-kanpinaren erabilera, honela:

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

1. Eguneko egonaldiaren tarifak goi-denboraldian.

Udal-kanpina goi-denboraldian (uztailaren 11tik abuztuaren 23ra, biak barne) eguneko egonaldian erabiltzeagatiko prezio publikoa honako tarifa hauen arabera ordainaraziko da:

	€/eguneko (BEZik gabe)
a) Helduak	7,45
b) Haurrak	6,41
c) Argia duen partzela	46,50

Epigrafe honetako 1. zenbakiko c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, halaber, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

2. Eguneko egonaldiaren tarifak tarteko denboraldian.

Udal-kanpina tarteko denboraldian (ekainaren 13tik uztailaren 10era, biak barne eta abuztuaren 24tik irailaren 13ra, biak barne) eguneko egonaldian erabiltzeagatiko prezio publikoa honako tarifa hauen arabera ordainaraziko da:

	€/eguneko (BEZik gabe)
a) Helduak	7,45
b) Haurrak	6,41
c) Argia duen partzela	41,95

Epigrafe honetako 2. zenbakiko c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, halaber, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

3. Eguneko egonaldiaren tarifak behe-denboraldian.

Udal-kanpina behe-denboraldian (martxoaren 1etik apirilaren 15era, apirilaren 21etik ekainaren 12ra, eta irailaren 14tik azaroaren 9ra, data guztiak barne) eguneko egonaldian erabiltzeagatiko prezio publikoa honako tarifa hauen arabera ordainaraziko da:

	€/eguneko (BEZik gabe)
a) Helduak	5,95
b) Haurrak	4,73
c) Argia duen partzela, egun bateko egonaldiarekin.	31,36
c) Argia duen partzela, bi eguneko edo gehiagoko egonaldiarekin (eguneko)	25,91

Epigrafe honetako 3. zenbakiko c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, halaber, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

4. Eguneko egonaldiaren tarifak zubietan.

Udal-kanpina zubietan (apirilaren 16tik apirilaren 20ra, biak barne, eta maiatzaren 1etik 3ra, biak barne) eguneko egonaldian erabiltzeagatiko prezio publikoa honako tarifa hauen arabera ordainaraziko da:

	€/eguneko (BEZik gabe)
a) Helduak	6,09
b) Haurrak	4,86
c) Argia duen partzela	33,59

Epigrafe honetako 4. zenbakiko c) ataleko tarifak barnean jasotzen du, halaber, bi pertsona helduren egonaldiaren tarifa.

5. Luzaroko egonaldien tarifak.

	€ (BEZik gabe)
a) 71-80 m^2-ko partzela argi, ur eta hustubidearekin (A partzela)	4.409,64
a) 60-70 m^2-ko partzela argi, ur eta hustubidearekin (B partzela)	4.138,86

Hona hemen tarifa horiek ordaintzeko epeak:

Partzela bakoitzaren % 40 urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen eta gainerako % 60a urte bakoitzeko abuztuaren 31 baino lehen ordainduko da.

Oro har, tarifa banku-helbideratzearen bidez ordainduko da, eta kontratuan bertan jasoko da hori.

Salbuespen gisa, eta betiere udal-kanpineko zuzendaritzaren oniritziarekin, tarifa banku-transferentzia edo banku-txartel bidez ordaindu ahal izango da, eta kontratuan bertan jasoko da hori.

6. Partzelak erreserbatzeko eta erreserbak ezerezteko baldintzak

Erreserba bat berresteko, egonaldi osoari dagokion zenbatekoaren % 50 ordaindu beharko da aurrerakin gisa.
Hauek dira ezerezte-komisioak:

a) Sarrera-eguna baino 15 egun lehenago edo lehenago ezerezten bada, aurrerakinaren erdia itzuliko da. Erdia 100 euro baino gehiago badira, 100 euroko komisioa kobratuko da. Hau da, gehienez 100 euroko komisioa izango du.

b) Sarrera-eguna baino 4 eta 14 egun arteko aurrerapenarekin ezerezten bada, ez da aurrerakinik itzuliko. Ordaindutako aurrerapena 200 eurotik gorakoa izan bada, 200 euroko komisioa kobratuko da. Hau da, gehienez 200 euroko komisioa izango du.

c) Sarrera-eguna baino 3 egun edo gutxiago lehenago ezerezten bada, aurrerakin osoa galduko da.

d) Ezereztea ezinbestezko arrazoiengatik gertatu bada, aurrerakin osoa itzuliko da.

7. Garbitegi-zerbitzuagatiko tarifak.

Garbigailu-zerbitzua erabiltzeagatiko prezio publikoa 4,00 euroko tarifaren arabera ordainaraziko da (BEZa barne).

Lehorgailu-zerbitzua erabiltzeagatiko prezio publikoa 4,00 euroko tarifaren arabera ordainaraziko da (BEZa barne).

8. Dutxa-zerbitzuagatiko tarifak.

Dutxa-zerbitzua erabiltzeagatiko prezio publikoa 3,60 euroko tarifaren arabera ordainaraziko da (BEZa barne).

9. Bungalowak erabiltzeagatiko tarifak.

Bungalowak erabiltzeagatiko tarifa espezifikoak sortzea onartzen da, bungalowaren neurriaren eta erabilera-sasoiaren arabera. Honela banatuko da denboraldia: aparteko denboraldia uztailaren 11tik abuztuaren 23ra bitartean izango da, biak barne; goi-denboraldia uztailaren 1etik uztailaren 10era bitarteko aldia eta abuztuaren 24tik abuztuaren 31ra bitarteko aldia izango da, guztiak barne; tarteko denboraldia apirilaren 16tik apirilaren 20ra bitarteko aldia, maiatzaren 1etik maiatzaren 3ra bitarteko aldia, ekainaren 6tik ekainaren 30era bitarteko aldia eta irailaren 1etik irailaren 13ra bitarteko aldia izango da, guztiak barne; eta behe-denboraldia lehen adierazi gabeko aldi guztiak izango dira. Bungalowek edukiera hau izango dute: 2-4 lagunentzakoak (gela 1), 4-6 lagunentzakoak (2 gela), 5-7 lagunentzakoak (3 gela), eta dibertsitate funtzional fisikora egokitutako bungalowak (2 gela, 4-6 lagun).

Horrenbestez, bungalowei aplikatu beharreko eguneko tarifak (BEZik gabe) honako hauek izango dira:

Bungalow-mota	Aparteko denboraldia (€/egun)	Goi-denboraldia (€/egun)	Tarteko denboraldia (€/egun)	Behe-denboraldia (€/egun)
Gela 1	109,27	103,91	85,05	71,27
2 gela	142,27	133,50	105,73	86,36
3 gela	175,86	164,14	135,18	113,59
Dibertsitate funtzional fisikora egokituak	142,27	133,50	105,73	86,36

Ohiz kanpo izarak eta eskuoihalak ematen badira, edo ohe-sofa erabiltzeko, berariazko tarifa bat ezartzen da, pertsonako 6,59 €-koa (BEZik gabe).

Sustapen bereziak egingo dira partzelak eta bungalowak aparteko denboralditik, goi-denboralditik eta tarteko denboralditik kanpo erabiltzeko. Ezaugarriak udal-kanpineko zuzendaritzak zehaztuko ditu, Orioko Udaleko Turismo batzordeak irizpena eman ondoren, eta salbuespenez eta presaz, Turismo batzordeko buruak oniritzia eman ondoren.

10. Bungalowak erreserbatzeko eta erreserbak ezerezteko baldintzak.

Erreserba bat berresteko, egonaldi osoari dagokion zenbatekoaren % 50 ordaindu beharko da aurrerakin gisa.

Hauek dira ezerezte-komisioak:

a) Sarrera-eguna baino 15 egun lehenago edo lehenago ezerezten bada, aurrerakina itzuliko da, baina 100 euroko komisioa kobratuko da. Aurreratutako zenbatekoa txikiagoa bada, kopuru osoa galduko da.

b) Sarrera-eguna baino 4 eta 14 egun arteko aurrerapenarekin ezerezten bada, ez da aurrerakinik itzuliko. Ordaindutako aurrerapena 200 eurotik gorakoa izan bada, 200 euroko komisioa kobratuko da. Hau da, gehienez 200 euroko komisioa izango du.

c) Sarrera-eguna baino 3 egun edo gutxiago lehenago ezerezten bada, aurrerakin osoa galduko da.

d) Ezereztea ezinbestezko arrazoiengatik gertatu bada, aurrerakin osoa itzuliko da.

11. “Late check-out” tarifak

Partzeletan, irteera-ordua 18:00ak arte atzeratzen bada, 10,91 €-ko tarifa osagarria ordaindu beharko da (BEZik gabe).

Bungalowetan, irteera-ordua 18:00ak arte atzeratzen bada, 21,81 €-ko tarifa osagarria ordaindu beharko da (BEZik gabe).

12. “Acsi” gidaren tarifa:

“Acsi” gidarekin lotuta, 2024rako eta partzeletarako eguneko 24,55 €-ko tarifa ezartzen da (BEZik gabe), eta horrek berekin dakar bi pertsona helduren eguneko egonaldia.

- Udal-baratzeak erabiltzea.

7.- Irizten da **BERE HORRETAN UZTEA ETA EZ HANDITZEA** ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatu beharreko tarifak:

- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.

- Bide publikoan kioskoak jartzea.
- Udalaren bide publikoetako lurzoruaren, hegalkinaren eta lurpearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

-Bide publikotik sarbide zuzena duten kutxazain automatikoak eta salmenta-makinak instalatu eta funtzionatzea.

- Finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek fatxadetan kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatiko zerga-tasa urteko 471,82 eurokoa izango da.

- Tasa honen b) atala 46,98 eurokoa izango da metro linealeko eta urteko.

- Orioko eguneko zentroan ile-apainketako zerbitzuak ematea.

- Udal-frontoia erabiltzea. Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilerari buruzko tarifak egokitzea eta handitzea irizten da.

- Udal-kiroldegia erabiltzea. Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuen kontratazioaren lizitazioa esleitzen denean, tarifa-proposamen berri bat aurkeztuko da.

- Udalaren futbol-softbol zelaia erabiltzea. Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuen kontratazioaren lizitazioa esleitzen denean, tarifa-proposamen berri bat aurkeztuko da.

- Tenis, paddle eta squasheko udal-pisten erabilera. Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuen kontratazioaren lizitazioa esleitzen denean, tarifa-proposamen berri bat aurkeztuko da.

- Arraunetxea teknifikazio-zentroa erabiltzea. Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuen kontratazioaren lizitazioa esleitzen denean, tarifa-proposamen berri bat aurkeztuko da.

- Udalbatzarraren aretoa erabiltzea.

- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuak erabiltzea.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua erabiltzea.

- Zarata-neurketak egitea Orioko ostalaritza-establezimenduetan.

- Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarreren tarifak.

- Udan ikastaroak eta jarduerak emateagatiko tarifa (UDA kanpaina).

8.- irizten da **EGOKITZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuak udalerriko bideetan horretarako ezartzen diren eremuetan eta ezar litezkeen mugekin aparkatzeari aplika dakizkiokeen tarifak, honela:

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

Egonaldi luzeko eremuetan ibilgailuak aparkatzea:

01/01-12/31 (orduak)	Munto	Hondartza/Abaromendi/Autopista azpia
1 h	1,55 €	1,80 €
2 h	3,10 €	3,60 €
3 h	4,50 €	5,30 €
4 h	5,60 €	6,85 €
5 h	6,75 €	8,20 €
6 h	7,85 €	9,60 €
7 h	9,00 €	11,00 €
8 h	10,10 €	12,35 €
9 h	11,20 €	13,75 €
10 h	12,00 €	15,00 €

Egonaldi laburreko eremuetan ibilgailuak aparkatzea:

01/1-12/31 (minutuak)	Bertakoak (zentimoak)	Bertakoak ez direnak (zentimoak)	Mugikortasun murriztua
Lehen 30 minutuak	Doan	Doan	Doan
40	5	10	Doan
50	10	20	Doan
60	20	40	Doan

70	30	60	Doan
80	40	80	Doan
90	50	1 €	Doan

Orioko Udaltzaingoak Orioko udalerriko bide publikoetan trakzio mekanikodun ibilgailuak horretarako ezartzen diren eremuetan eta ezar daitezkeen mugekin behar ez bezala aparkatzeagatik ezarritako isunak deuseztatzea: 30 euro isun bakoitzeko.

Aian erroldatuta daudenek, herritik kanpo erroldatuta dauden baina Orion lan egiten dutenek, enpresaren ibilgailu bat erabiltzen dutenek Orion erroldatuta baldin badaude, Orion etxebizitza baten titular direnek eta bertan erroldatuta daudenek, eta ibilgailua alokairu finantziarioan duten Orion erroldatutako bizilagunek aukera izango dute udal-itsasgarri bat lortzeko, aldez aurretik denboraldiko 85 euro ordainduta, trakzio mekanikoko ibilgailuak Orioko bide publikoetan aparkatu ahal izateko. Horretarako, udal-bulegoetan eskaera aurkeztu beharko da, dokumentazio honekin batera:

- Aiako udalerrian erroldatuak: errolda-agiria, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana egiaztatzen duen agiria.

- Oriotik kanpo erroldatuta dauden baina herrian lan egiten dutenak: lan-kontratuaren kopia konpultsatua, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana egiaztatzen duen agiria.

- Enpresaren ibilgailu bat erabiltzen dutenek, Orion erroldatuta baldin badaude: enpresaren ziurtagiria nor den ohiko gidaria egiaztatzen duena, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana egiaztatzen duen agiria. Itsasgarri bakarra emango da ibilgailuko eta familia-unitateko.

- Orion etxebizitza baten titular direnak eta bertan erroldatuta ez daudenak: jabetzaren eskriturak edo etxebizitzaren titulartasuna frogatzen duen erregistroaren ziurtapena, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana egiaztatzen duen agiria. Itsasgarri bakarra emango da ibilgailuko eta familia-unitateko.

- Ibilgailua alokairu finantziarioan dutenak (leasing, renting edo antzekoan), Orion erroldatuta baldin badaude: alokairu finantziarioa egiaztatzen duen agiria, ibilgailuaren

zirkulazio-baimena, ibilgailuaren aseguru-poliza eta ordainketa egin izana egiaztatzen duen agiria.

Aiako udalerrian erroldatuta daudenek % 50eko hobaria izango dute udal-itsasgarria lortzeko tarifan, trakzio mekanikodun ibilgailuak Orioko bide publikoetan aparkatu ahal izateko, betiere Aiako Udalarekin horretarako lankidetza-hitzarmena sinatzen bada.

9.- Irizten da **EGOKITZEA** Orioko udal-hilerriko zerbitzuak emateari eta emakidak egiteari buruzko tarifak, honela:

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

	€
1. Administrazio-emakidak	
a) Adjudikazioak	
Panteoia (50 urterako)	*10.000*
Nitxoa (15 urterako)	*1.350*
Kolunbarioa (20 urterako)	*530*
b) Luzapenak	
Nitxoa (5 urterako)	*400*
2. Zerbitzuak	
a) Hobiratzeak	
a.1 Nitxoetan eta panteoietan	
Gorpuak	*375,10*
Errautsak/hezur-hondarrak	*223,85*
a.2 Kolunbarioetan	*223,85*
b) Hobitik ateratzeak	
b.1 Hilotzak	

Panteoitik edo nitxotik	*278,30*
Lurreko hobitik	*598,95*
b.2 Errautsak- hezur-hondarrak	
Panteoitik edo nitxotik	*278,30*
Kolunbariotik	*223,85*
c) Hobiak ikuskatzea	
Okupazioaren zerrenda izenduna eta egiturazko analisia panteoietan	*145,30*
d) Panteoien mantentzea	
Panteoia kanpotik garbitzea eta mantentzea	*508,20*
Panteoia barrutik garbitzea eta mantentzea	*617,10*
Panteoia konpontzea (barruko apalak)	*290,40*
Hobi komuna mantentzea eta zaintzea	*308,55*

Ordenantza fiskalean berariaz jasotzen ez diren zerbitzu guztiak enpresa esleipendunak zerbitzua emateagatik duen kostuaren proportzio berean jasanaraziko zaizkio erabiltzaileari.

Erreferentziazko tarifen ordainketa zatikatzea onartzen da, zergadunaren egoera ekonomiko-familiarra ikusita.

Tarifa hau aplikatzeko arauak:

Emakidadunak hala eskatzen badu, eta egoera ikusita, Orioko Udalak erabateko askatasuna izango du ehorzketa-eskubideak itzultzeko. Hala, Orioko Udalak bere garaian emakidadunak ordaindutakoa itzuliko du, igarotako emakida-aldiari dagokiona kenduta, eta ordaindu beharreko zenbatekoa, gehienez, emakidadunak bere garaian ordaindutakoaren % 50 izango da.

10.- Irizten da **EGOKITZEA** prezio publikoei aplikatu beharreko gainerako tarifak, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an egindako bilkuran emandako irizpenean adierazitakoaren arabera.

11.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, zaborrak eta hiri-hondakin solidoak etxean biltzeko zerbitzua mankomunatu egin dela, zaborrak eta hiri-hondakin solidoak etxean biltzeagatik aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Mankomunitatearen Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartutakoak izango dira.

12.- Edateko ura etxeei eta gainerako establezimenduei etxeko eta industriako erabileretarako hornitzeko aplikatu beharreko tarifak eta ur-hartuneak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartutakoak izango dira.

13.- Irizten da **BERE HORRETAN EUSTEA** tokiko tributuei eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerei aplikatzeko arau hauek:

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, Orioko udalerriko udal-zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak ordainarazteari dagokionez, ez da berandutze-interesik eskatuko borondatezko aldian eskatu diren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko akordioetan, baldin eta horiek aldian aldiko muga-eguna duten eta modu kolektiboan jakinarazten diren zorrak badira, zor horien ordainketa, osotasunean, sortu ziren ekitaldi berean egiten bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen eta horien eranskinen aldaketari, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Udalbatzarraren erabaki honen

azalpen-zatian adierazitako baldintzetan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA hartutako erabakia eta horretarako egindako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz. Hori guztia honako arau hauen arabera:

a) **Ikusgai dauden lekua:** Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan.

b) **Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) **Erreklamatzeko legitimatuak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.

d) **Aurkezteko lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

e) **Errekurtsoak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Arauzko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta eskerrak eman ditu udal-gobernuak ordenantza fiskalak eta horien eranskinak aldatzeko proposamenarekin izan duen jarreragatik. Izan ere, udal kirol-instalazioetako zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa esleitzen denean, tarifen proposamen berri bat aurkeztuko da, bere talde politikoa ez baitator bat udal-gobernuak aurkeztutako prezio publikoen hasierako proposamenarekin.

Jarraian, Inaxio Alguacil zinegotziak hartu du hitza, EH-BILDUren izenean eta haren ordezkaritzan, eta aipamen berezia egin du kontu-hartzailetzako udal-teknikariek

ordenantza fiskalak eta horien eranskinak aldatzeko proposamenean egindako lanagatik, zifra ekonomikoen zerrenda zehatza eta zorabiagarria aipatzen baita, eta zergen, tasen eta prezio publikoen arloan % 3ko igoera orokorra aurreikusten baita, eta dagozkien hobariei bere horretan eusten baitzaie.

Bestalde, une honetan bere horretan utziko dira Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeari buruzko tarifak, harik eta dagozkion kirol-zerbitzuen lizitazioa esleitzen den arte, orduan egokituko baitira hari dagozkion tarifak.

Orioko etxez etxeko laguntza-zerbitzuari eta eguneko zentroan ile-apainketako zerbitzuei dagozkien tarifak eta ludotekaren erabilerari eta garajeen alokairuei buruzko tarifak % 5 igoko dira.

Azkenik, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazi du ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean errekargua % 50etik % 100era igotzen dela zergaren kuota likidoan, Zarautzen eta Zumaian gertatu den bezala, hutsik dauden etxebizitzen alokairua sustatzeko azken helburuarekin, nahiz eta aipatutako errekarguaren salbuespenek indarrean jarraitzen duten.

Jarraian, Nagore Rementeria zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du ordenantza fiskalak eta horien eranskinak aldatzeko proposamenean tarifen zifra zorabiagarriak aurreikusi diren arren, egia dela kontuan hartu direla gaiari dagokionez eskumena duten udal-teknikarien ekarpenak eta proposamenak. Eta gaineratu du zergak, tasak eta prezio publikoak onartzeak udal-bilketa handitzea dakarrela, eta diru-sarrera arruntak handituko direla, eta horrek guztiak Orioko udalerriaren ongizate komunitarioa hobetzea ekarriko lukeela.

BOST.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2025EKO EGUTEGI FISKALA.

Udalbatzarrak 2025eko egutegi fiskalaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2025eko egutegi fiskala, hau da, 2025eko ekitaldiko Zergen eta Prezio Publikoen Egutegi Fiskala, non diru-sarrera publiko horiek ordaintzeko epeak ezartzen diren. Epeak adierazitako egunean amaituko dira, edo, egun hori baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean.

SEI.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zortziak eta laurden direla. Nik, Udaleko idazkariak, **ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.**

ALKATE-PRESIDENTEA, **IDAZKARIA,**